

Jon Santacana ◊ Eskiatzailea

Ikusmen arazoak izateak ez du Jon Santacananen kirol ibilbidea oztopatu; gaixotasuna erreparatu bezain laster hasi zen eskiatzen gurasoen laguntzarekin, eta profesional izatera iritsi da.

«Eskia zentzumen mailan oso kirol aberatsa dela uste dut»

Estitxu Zabala

Jon Santacana (Loiola, 1980) Donostian egon berri da, aurreko hilabetean. Izan ere, Osakidetzak antolatutako hitzaldi bateko protagonista izan da, *Gailurren bila, deus ez da ezinezkoa* izenburupean. Bertan, bere gaixotasunak kirol ibilbidean zer nolako eragina izan duen azaldu du eta, gutxi ikusten duen arren, asko lortzera hel daitekeela argi esan du. Jaio-terrirra maiz etortzen ez denez, IRUTXULOKO HITZAK aukera aprobetxatu du berarekin hitz egiteko. Hitzaldiaren hariari tiraka aritu da eta bere hurrengo erronkaren berri eman du. Izan ere, dagoeneko hasi du denboraldia eta Holandan jokaturako lehenengo nazioarteko lehiari urrezko eta zilarrrezko dominak lortu ditu.

Nola oroitzen dituzu zure hastapenak? Zailtasunak izan zenituen?

Sekula ez dudala beldurrik izan uste dut. Eskia gustuko nuen zer-bait zen eta lehiari hasi nintzenen nahiko ongi moldatu nintzen. Hori bai, lehiari dagozkion oztopoak konpontzen saiatu behar zarenean, gida galdu eta aurrera jarraitu beharra esaterako, indar asko behar duzu. Hori gogorra goa izan da, urte askotako lana izan baita. Momentu txarrak izan ditut, baina onak ere ez dira falta izan.

«Miguel Galindorekin bederatzigarren urtea beteko dut eta lortu dugun koordinazioa izugarria da»

«Nerabezarotik maila profesionalera iritsi arte nirekin etorri da eskia; beraz, eragina izan du nire heziketan»

Gidari jarraituz egiten duzu ibilbidea. Zer suposatuko luke gida aldatu beharrak?

Eragozpena izango litzateke. Miguel Galindorekin bederatzigarren urtea beteko dut eta lortu dugun koordinazioa izugarria da. Oso ongi ezagutzen gara eta elkarri begiratze hutsarekin badakigu besteak zer pentsatzen duen. Oso garrantzitsua da, maila pertsonalean ere ongi moldatzeak garrantzia baitu, egun asko ematen baiti-



tugu elkarrekin. Iazko Olinpiar Jokoak prestatzen, uste dut 300 egun inguru eman genituela elkarrekin. Beraz, urtebetean, pentsa ezazu! Gida eta biok neska-lagunekin baino denbora gehiago gaudela elkarrekin. Gida aldatu behar ko banu ohituko nintzateke, baina kostatuko litzaidake.

Zer da pertsonalki kirol honek eman dizun gauzarik garrantzitsuenak?

Kirolak asko erakutsi didala uste dut. Nerabezarotan hasi eta maila profesionalera iritsi arte nirekin etorri da eskia; beraz, eragina izan du nire heziketan. Nik beti aipatzen dut filosofia txiki bat, pertsona guztiek gure arazotxoak ditugula eta egunero erronken aurrean gaudela. Gure baliabideak ezagutzeak ez digu gure helburuak lortzea oztopatu behar.

Ikusmen arazoak dituztenei lagundu beharizan diezu?

Hitzaldia bukatzean emakume bat hurbildu zait ikusmen arazoak dituela esanez eta ez dela eskiatzera ausartzen. Ni halakoei animoak ematen saiatzen naiz, eskia zentzumen mailan oso kirol aberatsa dela uste dut eta elbarritasunen bat dugunok beste zentzumen batzuk pizten ditugu. Oreak ona izaten dugu eta kalitate horiek onak dira eskirako. Beraz, pausoa eman beharra dago eta, ONCEko kideak badira, euren delegazioan emango dizkiete beharrezkoak dituzten argibide guztiak.

«2014ko Olinpiar Jokoak ere buruan ditugu, baina pixkanaka joan behar da eta gertuagoko lehiegi begiratu»

Zein da zure hurrengo erronka

Momentu honetan 2011ko urtaririlean izango den Munduko Txapelketarako prestatzen ari gara. Hori epe motzera begira, izan ere, Olinpiar Jokoak daude eta gero errekupeperazio tartea hartu behar da, eta hartu dugu, denboraldi gogorra izan baita. Ezinezkoa da beti %100ean egotea, erritmoak mantendu behar dira. Epe luzera, 2014ko Olinpiar Jokoak ere buruan ditugu, baina pixkanaka joan behar da eta gertuago dauden lehiegi begiratu.

◊ ezabala@hitza.info